

URRUNAGO JOATEKO

ARTISTA HORI SEGI



3 ANNONCIATIONS

PASCAL RAMBERT

Structure production

22.05.17-a - asteartea > 20:00

22.05.18-a - asteazkena > 20:00

ANG / Quintaou Antzokia



SŒURS (MARINA & AUDREY)

PASCAL RAMBERT

Structure production

22.05.19-a - osteguna > 20:00

22.05.20-a - ostirala > 20:00

BAI / Michel Portal Antzokia

MAITATUKO DUZU ERE



EUSKADIKO ORKESTRA + KALAKAN

21.10.23-a - larunbata > 20:00

DON. LOHIZUNE / Jai Alai



GERNIKA

MARTIN HARRIAGUE

+ BILAKA KOLEKTIBOA

22.01.14-a - ostirala > 20:00

22.01.15-a - larunbata > 20:00

22.01.16-a - igandea > 17:00

BAI / Michel Portal Antzokia



OIHANA

MARYSE URRUTY

Itzuli konpainia

22.02.06-a - igandea > 15:00

(euskaraz)

22.02.08-a - asteartea > 20:00

(euskaraz frantses gaintituluekin)

ANG / Quintaou Antzokia

WEB IRRATIA

TOPAKETA EMENDATUA

Pascal Rambert-ekin

Marc Blanchet, saiakeragile

eta literatura kronikariak

animaturik

Topaketa emendatuak publikoari irekiak diren irrati emankizunak dira. Denboraldi honetan gomituak izan diren artista ezberdinak gurutzaraziz, elkarrizketa horietan beren ikusgarriak zeharkatzen dituzten gai amankomunak aipa daitezke. Emankizun horiek, artista, autore edo obra batekilako topaketa luzatzeko parada eskaintzen dute.

Pascal Rambert-ekin 2021eko urriaren 20an Baionako Mediatekan grabatu dugun topaketa emendatuaren podcasta laster entzungai izanen duzue Eszena nazionalaren webgunean eta web irratian.

QR kodea eskanea ezazue Eszena Nazionalaren web irratiaren ezagutzeko!



MAITASUNAREN ITXIERA

PASCAL RAMBERT

Teatro Arriaga Antzokia

21/22 DENBORALDIA

Nº04

Baiona
 Michel Portal Antzokia
 21.10.20
 20:00
 Iraupena 2:00

Hedapen-kidea:
Euskal kultur erakundea



Bereizte bat. Eneko eta Miren. Lehenak hitz egiten du eta bigarrenak aztoraturik entzuten du. Gero, bigarrenak hitza hartzen du eta lehenak haren egia entzuten du. Bi antzerkilari, Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga. Bi bakarrizketa, bi bloke, hitzaren botereak eta isiltasunaren minak arraildu espazio leun batean. *Clôture de l'amour* antzezlanaren euskarazko lehen bertsioa da hau, eta Pascal Rambert idazleak berak taularatu du. Gaitzeko antzerki-balentria!

Elkarrizketa Pascal Rambert taularen zuzendariarekin

Clôture de l'amour antzezlanaren euskarazko bertsioarekin, frantsesa ez den hizkuntza batean taularatzen duzun hamahirugarren bertsioa da. Esperientzia berri honek zer erran nahi du zuretzat?

Lehenik, euskal kultura bada. Izan ipar edo hegoaldea, Euskal Herria biziki garrantzitsua da neretzat; ttikia nintzelarik, familiarekin hara joaten ginen eta nere imaginarioaren bidez lur honi atxikia izan naiz beti. Ez naiz maiz hala izaten, baina hor nere buruaz biziki harro nago nere antzezlana hizkuntza horretan emana ikusirik, are gehiago gutti baitira euskaraz antzeztuak diren frantses autoreak. Bertan parte hartzen duten antzezleak, Miren Gaztañaga eta Eneko Sagardoy egiazko izarrak dira. Antzezlana gazteleraz ezagutu zuten eta berehala nahi ukan dute Bilboko Antzokian eskaini. Antzezteko molde zoragarria dute, errotik engaiatuak dira.

Denborarekin, zer ikasi duzu munduan zehar emana izan den obra honetaz ?

Frantsesa ez den beste hizkuntzetan taularatu ahal izan ditudan bertsio desberdinen eta beste batzuek taularatu beste batzuen

Testua, zuzendaritza, eszenografia, argiak eta jantziak Pascal Rambert — Itzulpena eta bertsioa Eneko Sagardoy, Danele Sarriugarte — Antzezleak Miren Gaztañaga, Eneko Sagardoy — Zuzendari laguntzaileak Lucia Astigarraga, Nagore Navarro — Eskerrak Jordi Buxo eta Teatro Kamikaze — Philippe Mendes koro zuzendariaren eta Laurie Garcia Garin, musika kultura alorreko aholkulari pedagogikoaren & musika eta koro formakuntza taldearen arduradunaren zuzendaritzapean arituko diren Maurice Ravel Kontserbatorioko koro klaseko 21 ikasleren partaidetzarekin.

bidez ulertu eta biziki azkar sentitu dudana da, denak berdinak garela. Izan Paris ala Pekin, New York ala Kairo, izan Finlandian, Japonian edo Alemanian, bereizte baten oinazearen aitzineko gizon eta emazte baten harremanak eragin berak sorrarazten ditu gure baitan, zirimola berak. Antzezlana honen historia, ez dut liburu bat irakurri asmatu, bizi izan dut. Bereizte bati buruz gizadiaren baitan dagoen lotura amankomun baten segurtamen hori, 2011n *Clôture de l'amour* Avignoneko Festibalean sortu zen urtetik bizi dut.

Zure taularatze berriak nola prestatzen dituzu atzerrian?

Ez dut aktoreei gauza handirik kontatzeko beharrik. Lehenik mahainaren inguruko lana bada, elkarrekin eramaten dugun irakurketa denbora hori, non hizkuntzaren barnean jausten garen, elkarrekin bere imaginarioa eta bere sentsazioak sentitzeko. Halere, idazketa modu horrek antzerkilari paregabeak eskatzen ditu! Testua ikasi ondoren, errusiar mendi bat edo slalom erraldoi bat bezalakoa da. Lehen hitzak ahoskatu orduko, ezinezkoa da gelditzea. Momentu hortan, hizkuntza horrek aktoreen gorputza hartzen du eta eramaten. Ez dut sekula galdetzen hau edo hura egitea; funtsezko bi posizio erakusten ditut, hots jokoaren espazioa asmatu dudana diagonal. Entsaioak egiten ditugu, etengabe, eta mintzatzen gara, beharrez. Kulturen araberakoa izaten da... Aitortu behar dut egun batez hortaz idatzi nahi nukeela!



© Vanessa Rebade

PASCAL RAMBERT

Antzerkia, dantza, taula zuzendaritza: urte gutxi batzuetan, Pascal Rambert-ek bere ele oldarkorra taula gainera ekarri du, intriga eta istorioetatik kanpoko idazketa bat inposatzeko eta gizakiaren izaera desiragarria tentsioan emateko. 2011ko *Clôture de l'amour* obraren ondotik, bere ekoizpenak hizkuntza anitzetan itzuliak izan dira. Ondorioz, itxura ezberdinetako artista hau, munduan zehar gehien antzeztua den frantses autore eta taula zuzendariarik bat bilakatu da. Horrela, *Sœurs (Marina & Audrey)* Estonian eta Espainian aurkeztua izan da. Azkeneko ekoizpenen artean, *Architecture* Avignon-eko Festibaleko Ohorezko Gortean sortua izan da 2019an eta 3 *annonciations* bezala, bira handi baten karietara anitz emana izan da.